Bestelako Xedapenak

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

4431

EBAZPENA, 2010eko abuztuaren 30ekoa Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko sailburuordearena. Honen bidez adierazten da Kawa Fundazioak duen obligazioa jasotako diru-laguntza itzultzeko Euskadiko Diruzaintza Nagusira. Diru-laguntza hori 2009ko maiatzaren 11n sinatutako lankidetza-hitzarmena betetzeko emandakoa da.

2009ko maiatzaren 11n lankidetza-hitzarmena sinatu zen Osasun Sailaren, Osakidetza erakunde publikoaren eta Kawa Fundazioaren artean, Kurdu Herrian programa bat garatzeko aditu sanitarioak trebatzeko. Hori dela-eta, hasi den administrazioko espedientean jasotako jardunak ikusita, honako hauek aplikatuko zaizkie:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Sailburuordetza honen 2010eko martxoaren 3ko Ebazpenari jarraituz, itzulketa-prozedurari ekitea erabaki zen, lankidetza-hitzarmen hori sinatu ondoren Kawa Fundazioak jaso zuen kopurua itzul zezan. Fundazioak obligazioa hartu zuen diru-laguntza hori eman zen horretarakoxe erabiltzeko, eta hori ez betetzea zen egintza horri heltzeko arrazoia.

Ebazpenak 15 eguneko epea eman zion hartzaileari egoki iritzitako alegazioak azaltzeko, eta bide batez, jakinarazi, behin alegazio horiek jasota, edo erabili gabe epea amaituta, ebazpena emango zela bidezko zen kopurua itzultzeko obligazioa jasoz.

Bigarrena.– Ebazpena argitara eman da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legean 58. artikulutik 61.era bitartekoetan ezarrita bezala, baita urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean idatzitakori jarraituz ere. Azken jarduera hori ondorengo ekintza hauengatik sartu da:

1.– Ebazpenaren testu osoa bi aldiz bidali zen fundazioak berak jakinarazpenetarako emandako helbidera, Posta Zerbitzu publikoa erabilita, posta ziurtatua tarteko, hartu izanaren abisua jasotzeko. Ez batean, ez bestean, ez genuen emaitzarik jaso, eta bietan administrazio honetara itzuli zituzten, beren iraungipen-abisu eta guzti, posta-zerbitzuak egindako entregatzeko bi saiakeren ondoren.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

4431

RESOLUCIÓN de 30 de agosto de 2010, de la Viceconsejera de Calidad, Investigación e Innovación Sanitaria, por la que se declara la obligación de la fundación Kawa de reintegrar a la tesorería general del país vasco la subvención concedida en virtud del convenio de colaboración suscrito el 11 de mayo de 2009.

Vistas las actuaciones que obran en el expediente administrativo iniciado con motivo de la celebración, el 11 de mayo de 2009, de un convenio de colaboración entre el Departamento de Sanidad, el ente público Osakidetza-Servicio vasco de salud y la Fundación Kawa para el desarrollo de un programa de formación sanitaria de especialistas sanitarios del Pueblo Kurdo, les son de aplicación los siguientes

ANTECEDENTES

Primero.– En virtud de la Resolución de 3 de marzo de 2010, de esta Viceconsejería, se acordó el inicio del procedimiento de reintegro de la cantidad percibida por la Fundación Kawa con motivo de la suscripción del mencionado convenio de colaboración. El acto tenía por fundamento el incumplimiento de la obligación asumida por la fundación de emplear la ayuda con el destino específico para el cual había sido concedida.

La resolución habilitaba a favor de su destinataria un plazo de quince días a los efectos de que pudiera formular las alegaciones que estimara oportunas, informándole, asimismo, de que, recibidas las mismas o transcurrido el plazo sin hacer uso del mismo, se dictaría resolución declarando la obligación de reintegrar las cantidades procedentes.

Segundo.– La resolución ha recibido la publicidad establecida en los artículos 58 a 61 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de régimen jurídico de las administraciones públicas y del procedimiento administrativo común, según la redacción dada por la Ley 4/1999, de 13 de enero, actividad que se ha integrado por las siguientes actuaciones:

1.– El texto íntegro de la resolución fue remitido en dos ocasiones al domicilio señalado por la fundación a efectos de notificaciones, a través del servicio público de Correos mediante correo certificado con aviso de recibo. Ambos envíos resultaron infructuosos y concluyeron con su devolución a esta administración con sus respectivas indicaciones de caducidad en los dos intentos de entrega efectuados por el servicio postal.

2.– Testu bera Madrileko Udaletxeko iragarkioholean ere jarri zen; horretarako emandako eginbidearen arabera, udalerri horretakoa baita fundazioak emandako helbidea.

3.– 2010eko uztailaren 16ko 136. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, iragarpen bat ezarri zen ekainaren 23an, eta horren bitartez, ebazpenaren berri eman. Iragarpeneko testuan azalpen zehatzak zetozen, fundazioak ebazpena eskuratu, eta horren aurrean alegazioak egiteko.

Hirugarrena.– 2010eko martxoaren 3ko Ebazpenaren gainean alegaziorik ezarri gabe igaro da Kawa Fundazioari emandako epea.

Jarduerarik ezaren barruan sartzen da espedientea eskuratzeko duen eskubidea ez erabili izana; erakunde hori ez baita administrazio honekin harremanetan jarri ebazpena jasotzeko, ezta beraien intereseko espediente horretako beste edozein dokumenturen kopia jasotzeko ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Sailburuordea da ebazpen hau emateko eskumena duen organoa ondoko araudian ezarritakoaren arabera: 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorraren kontura emandako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen jardunbide orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena (4.2 artikuluaren amaieran); eta eman zaizkion atribuzioak, berriz, ondoko araudian ezartzen dira: Osasun eta Kontsumo Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 3ko 579/2009 Dekretuko 4. eta 12. artikuluetan.

Bigarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dion prozedura zuzentzen duen araua abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua da.

Espedienteari ekiteko arrazoia arau horretan ezarritako zioetako bat da; zio hori metatzen bada, itzulketa-prozedurari hasiera eman dakioke. Zehazki, bere 4.1 artikuluan honela dio: «Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren pentzutan emandako diru-laguntzen edo laguntzen onuradunak eskatu eta eman zaion zenbatekoa, eta legez aplikagarriak izan daitezkeen interesak itzuli egin beharko ditu, honako kasu hauetakoren bat ematen denean: laguntza eskatu eta eman zen helburu zehatz horretarako ez erabiltzea; diru-laguntza edo laguntza egintza baterako eman bazen, egintza hori ez burutzea; aldez aurretik zehaztutako xedeetarako erabili izana ez justifikatzea; edo, oro har, maiatzaren 30eko 1/1991 Le-

2.– El mismo texto fue expuesto en el tablón de edictos del Ayuntamiento de Madrid, localidad del domicilio señalado por la fundación, según lo acredita la diligencia expedida al efecto.

3.– En el Boletín Oficial del País Vasco n.º 136, de 16 de julio de 2010, se insertó un anuncio de 23 de junio, por el que se notificaba la resolución. El texto del anuncio contenía las indicaciones precisas para que la fundación pudiera obtener la resolución así como para formular alegaciones frente a la misma.

Tercero.– Ha transcurrido el plazo otorgado a la Fundación Kawa sin que esta haya formulado sus alegaciones con respecto a la Resolución de 3 de marzo de 2010.

La inactividad ha comprendido el ejercicio de su derecho a acceder al expediente, por cuanto que la entidad no ha entablado contacto con esta administración con el objeto de que le fuera entregada la resolución o, en su caso, copia de cualesquiera otros documentos obrantes en el mismo que fueran de su interés.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

Primero.– La Viceconsejera de Calidad, Investigación e Innovación Sanitaria es el órgano competente para dictar esta resolución, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4.2 in fine del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de la entidades colaboradoras que participan en su gestión, así como con las atribuciones que le han sido conferidas en los artículos 4 y 12 del Decreto 579/2009, de 3 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Sanidad y Consumo.

Segundo.– Es norma que rige el procedimiento al que esta resolución pone fin el precitado Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

La incoación del expediente obedece a uno de los motivos dispuestos por esa norma y cuya concurrencia autoriza el inicio de un procedimiento de reintegro. Concretamente, su artículo 4.1 establece que «En los supuestos en que el beneficiario de una subvención o ayuda con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi no utilice la misma para el destino específico para el que se solicitó y concedió, no realice la actuación que dio origen a la subvención o ayuda, no justifique su aplicación a los fines determinados para los que se interesó o, en general, incumpla las obligaciones establecidas en el artículo 31.4 de la Ley 1/1991, de 30 de mayo, o en la norma reguladora correspondiente, vendrá obliga-

geko 31.4 artikuluan edo dagokion araudian ezartzen diren eginbeharrak ez betetzea».

Hirugarrena.– Administrazio-prozedurari dagokionez, dekretu horren 5. artikuluak sartzen dituen berezitasunen babesean, diru-laguntzak eta laguntzak itzultzeko prozeduran, alegia, prozedura xedatzen duen ebazpenak 15 eguneko epea emango dio pertsona edo erakunde interesdunari alegazioak egiteko. Behin alegazioak jasota, edota alegazioak egin gabe epea igarota, organo eskudunak ebazpena emango du, non obligazioa jasoko den egoki den kopurua itzultzeko Euskadiko Diruzaintza Nagusira.

Itzulketa gauzatzeko xedearekin, gehienez bi hilabeteko epea emango zaio obligazioa duen pertsona edo erakundeari, eta borondatezko ordainketa-alditzat joko da.

Epe horretan itzulketa gauzatzen ez bada, jakinaren gainean jarriko da Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskuduna, berak, premiamendu bidez, horretaz indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera joka dezan.

Azaldutako oinarrien, eta orokorrean ezartzeko diren beste zenbaiten argitara, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Kawa Fundazioari Euskadiko Diruzaintza Nagusira 26.522,50 (hogeita sei mila bostehun eta hogeita bi euro eta berrogeita hamar zentimo) itzultzeko obligazioa azaltzea; alegia, 2009ko maiatzaren 11n sinatutako Hitzarmena dela-eta Osasun eta Kontsumo Sailak emandakoak, Herri Kurduetan aditu sanitarioen trebakuntza sanitariorako programa garatzeko.

Bigarrena.– Fundazioari bi hilabeteko epea ematea, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik kontatzen hasita, kopuru hori borondatez ordaintzeko.

Itzulketa egiteko, aipatutako diru kopurua sartu beharko da Banco Bilbao-Vizcaya Argentariako 0182.5685.07.0000.226271 kontu-zenbakian.

Jakinaren gainean jartzen dugu interesduna, epe horretan diru-sarrerarik egin ezean, Ekonomia eta Ogasun Saileko organo eskudunari horren berri emango zaiola, berak, premiamendu bidez eta indarrean dauden xedapenetan ezarritakoaren arabera joka dezan.

Hirugarrena.–Bigarren gertakariko aurrekarietan aipatzen diren egoerak kontuan izanda, eta prozedura ongi amaitu nahirik, agintzea, ebazpen hau argitaratzeko Madrilgo Udaletxeko iragarki-oholean, eta aldi berean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian,

do a reintegrar la cuantía concedida y percibida más los intereses legales que resultaren de aplicación».

Tercero.– Al amparo de las especialidades que, con respecto al procedimiento administrativo general, el artículo 5 del mencionado decreto introduce en el procedimiento para el reintegro de las subvenciones y ayudas, la resolución que disponga el inicio del procedimiento concederá a la persona o entidad interesada un plazo de quince días para formular alegaciones. Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubieran formulado, el órgano competente dictará resolución por la que se declare la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que procedan.

Con el objeto de hacer efectiva la devolución, se concederá a la persona o entidad obligada un plazo máximo de dos meses, que recibirá la consideración de periodo de pago voluntario.

La falta de reintegro dentro de ese plazo será puesta en conocimiento del órgano competente del Departamento de Economía y Hacienda con el fin de se proceda por la vía de apremio, a tenor de lo establecido al respecto por las disposiciones vigentes.

A la luz de los fundamentos expuestos y de cuantos otros resulten de general aplicación,

RESUELVO:

Primero.– Declarar la obligación de la Fundación Kawa de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco la cantidad de 26.522,50 (veintiséis mil quinientos veintidós euros y cincuenta céntimos), recibida del Departamento de Sanidad y Consumo a la suscripción del Convenio de 11 de mayo de 2009 para el desarrollo de un programa de formación sanitaria de especialistas sanitarios del Pueblo Kurdo.

Segundo.– Conceder a la fundación un plazo de dos meses, contado a partir de la publicación de la presente resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, para efectuar el pago voluntario de la cantidad señalada.

El reintegro habrá de efectuarse mediante ingreso del citado importe en la cuenta corriente n.º 0182.5685.07.0000.226271 del Banco Bilbao Vizcaya Argentaria.

Se apercibe a la interesada de que la falta de reintegro en el plazo señalado será puesta en conocimiento del órgano competente del Departamento de Economía y Hacienda con el objeto de que proceda por la vía de apremio, según establezcan las disposiciones vigentes.

Tercero.– Consideradas las circunstancias referidas en el antecedente de hecho segundo y procurando el buen fin del procedimiento, ordenar que se dé curso, con carácter simultáneo, a la publicación de esta resolución en el tablón de edictos del Ayuntamiento

beti ere, interesdunak emandako helbidean jakinaraztea oztopatu gabe.

Bai jakinarazpenak, baita argitalpenak ere, ondoko ohar hau edukiko du: ebazpen honekin gora jotzeko errekurtsoa jarri dakioke Osasun eta Kontsumo Saileko sailburuari hilabeteren buruan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, beti ere, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluetan ezarritakoa kontuan izanda, eta zuzenbidean egoki iritzitako beste edozein ekintza egitea oztopatu gabe.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abuztuaren 30a.

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza
Sanitarioko sailburuordea,
OLGA RIVERA HERNÁEZ.

de Madrid y en el Boletín Oficial del País Vasco, sin perjuicio de su notificación en el domicilio señalado por la interesada.

Tanto la notificación como la publicación contendrán la indicación de que, frente a esta resolución, cabe la interposición de un recurso de alzada ante el consejero de Sanidad y Consumo en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo establecido en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de que pueda entablar cuantas otras acciones procedan en derecho.

En Vitoria-Gasteiz, a 30 de agosto de 2010.

La Viceconsejera de Calidad,
Investigación e Innovación Sanitaria,
OLGA RIVERA HERNÁEZ.